



Universidad del País Vasco    Euskal Herriko Unibertsitatea

LETREN  
FAKULTATEA  
FACULTAD  
DE LETRAS

# GAZTE ELEBIDUNEN EUSKARA GAITASUNAK, HIZKUNTZA OHITURAK KONTUAN HARTURIK

GRADU AMAIERAKO LANA

Euskal Ikasketetako Gradua

2020-2021 ikasturtea

**Egilea:** Uxue Tardienta Zurbano

**Zuzendaria:** Maria Jose Ezeizabarrena Segurola

## LABURPENA

Hiztun baten egunerokoan hizkuntza batekiko jarrera eta ohiturek ondoren hizkuntza horren ekoizpenean eraginik duten ala ez ikusiko dugu lan honetan. Horretarako, lehenik, adituek hizkuntzaren higaduraren gaiaren inguruan diotena ikusiko dugu; hizkuntza bat hitz egiten ez bada ea galdu daitekeen. Horretarako, Hizkuntzaren Higadura aztertuko dugu eta Schmid (2008) -en ideia: “hizkuntza hitz egiten den komunitatearekin haustura dagoenean hizkuntzaren ala hizkuntza gaitasunen galtzea egonen da” gure ikerketan ere betetzen den ala ez ikusiko dugu. Beraz, Schmid (2008)-en ideia nik hipotesizat hartuko dut. Hau izanen da lanaren gakoa, puntu honetatik abiatuta nire lana jorratuko dut.

Nire lan honetan aztergai ditudan parte-hartzaileek ezaugarri jakin batzuk dituzte: denak D ereduan matrikulatutakoak dira, adin berekoak dira denak eta ondoz ondoko elebidunak (gaztelania ama hizkuntza eta euskara 2-3 urterekin ikasi zuten); beraz, gure gizartean presente dagoen elebitasunaren gaia azaldu egingo dut, gainera bada ere. Bestalde, egun parte-hartzaileek euskararekin duten kontaktuan oinarrituz, hau da, hizkuntza ohituretan oinarrituz, bi parte-hartzaile talde bereizi ditut. Horrez gain, Nafarroako eremu mistoan bizi dira. Ondorioz, gazte hauen ingurunearen inguruko datu batzuk azaleratuko ditut, izan ere, inguruak eragina baitauka hiztunengan; ez da berdina euskara biztanle guztiek dakiten herri batean bizitzea edo gutxi batzuk bakarrik dakiten batean bizitzea.

Ondoren, Schmid (2008)-en ideia nire ikerketan ere betetzen den ala ez ikusiko dut. Horretarako, metodologia zehatz bat jarraitu dut: partaideei eginiko galdetegi eta elkarrizketak. Alde batetik, galdetegien bidez gazteek euskararekiko duten atxikimendua ikusi dut eta haien egungo euskararekiko egoera zein den ikusi dut. Beste alde batetik, hiztunei eginiko elkarrizketekin haien hizkuntza gaitasunak aztertu ditut. Elkarrizketak transkribatu ondoren, hortik datu batzuk atera ditut.

Datu horietan aztertu ditudan gaiak, adibidez, hauek dira: ergatiboa, lokailuak, hizkuntzaren kontsistentzia eta jariakortasuna. Beraz, gai hauek kontuan hartuta Schmid (2008) -en ideia nire ikerketan betetzen den ala ez ikusiko dut.

Azkenik, datu guztien emaitzak izanik, ondorioak aipatuko ditut: orokorrean Schmid (2008) -en ideia eta nire ikerketak bat datoz, salbuespenak salbuespen. Eta amaitzeko, ateratako datuen iturriak ipiniko ditut.

## AURKIBIDEA

|  |    |
|--|----|
| 0. Sarrera.....  | 4  |
| 1. Elebitasuna.....                                      | 4  |
| 1.1. Elebitasun motak: goiztiarra eta ondoz ondokoa..... | 5  |
| 1.2. Hizkuntza gutxitu batekiko elebitasuna.....         | 5  |
| 2. Hizkuntza higadura.....                               | 6  |
| 2.1. Hizkuntzaren higaduraren adierazgarriak.....        | 7  |
| 2.2. Hizkuntzaren higaduraren faktoreak.....             | 7  |
| 3. Ikerketaren diseinua eta zergatia.....                | 8  |
| 3.1. Parte-hartzaileak.....                              | 8  |
| 3.2. Datuak biltzeko prozedura.....                      | 9  |
| 3.2.1. Galdetegia.....                                   | 9  |
| 3.2.2. Elkarrizketak.....                                | 11 |
| 3.3. Ekoizpenetako aztergaiak.....                       | 12 |
| 3.4. Parte-hartzaileen xehetasunak.....                  | 12 |
| 4. Emaitzak.....   | 14 |
| 4.1. Ergatiboa.....                                      | 14 |
| 4.2. Lokailuak.....                                      | 15 |
| 4.3. Hitz txandak.....                                   | 16 |
| 4.4. Hizkuntzaren kontsistentzia.....                    | 17 |
| 5. Ondorioak.....  | 21 |
| 6. Bibliografia.....                                     | 22 |

## **0. SARRERA**

Gradu Amaierako Lan honen helburua Nafarroako Eremu Mistoko D ereduaz hezitako euskara bigarren hizkuntza goiztiar (H2gdun) bezala duten gazteen gaitasunak ikustea da. Lehenbizi, Hizkuntzaren Higadura aztertu dut, hau baita lan honen ardatza. Hizkuntzaren Higadura mintzaira bat ez erabiltzearen ondorioz hizkuntza edo hizkuntza gaitasunak galtzean datza (Schmid & Köpke, 2007). Beraz, ikerketa hau abiapuntu honetan kokatuta dago; hemendik abiatuta ikusiko dugu hau Nafarroako gazte elebidunengan zer ondorio dituen.

Horretarako, ikerlan txiki bat burutu dut: hasteko, gazteak ingurune erdaldunean bizi eta hezi izan dira, euskaraz jasotako heziketa bakarria ikastolan izan da. Beraz, gazteek euskararekiko duten atxikimendua ikusi dut eta hau aztertzeko egin zaizkien galdetegietatik ateratako datuak izan ditut lagungarri. Beste alde batetik, euskaraz hitz egiteko duten gaitasuna ikusi dut, honetarako, egindako elkarrizketen transkribaketetatik ateratako datuak aztertu ditut. Honekin guztiarekin, euskara 5 urtez erabili gabe egoteak hiztun hauek eragina duen ala ez ikusi dut.

Lan hau beraz, enpirikoa izango da nagusiki; datu-bilketa batean oinarritzen baita. Honek diseinu bat, bilketa, analisia, emaitzak... eskatzen ditu. Honako egitura emango diot lanari: lehen atalean elebitasunaren gaia aztertu dut; gazte denak elebidunak baitira eta horrek eragina izango duelako lanean zehar. Hurrena, Hizkuntzaren Higaduraz dihardut bigarren atalean, hemen ikusiko dugu Schmid-en ideia sakonago. Ondoren, ikerketaren diseinua azaleratuko dut eta diseinu hori aukeratzearen zergatiak. Gero, emaitzak plazaratuko ditut eta amaitzeko, emaitzetatik ateratako ondorioak.

## **1. ELEBITASUNA**

Elebitasuna beharizan sozialen eta komunikatiboen arabera bi hizkuntza erabiltzearen gaitasuna da (Idiazabal & Larringan, 2004). Hiztunak hizkuntzaren funtzio guztiak ala batzuk bakarrik gauzatzean bi hizkuntzak normaltasunez erabili ahal izateko gaitasuna du. Elebiduna txikitatik izan daiteke, jaiotzatik bi hizkuntza jaso baitituzte haur askok, ala nagusiagoa zarenean, heldu askok bigarren hizkuntza 30 urtetatik aurrera ikasten baitute. Beraz, elebitasunarentzat ez dago adinik: pertsona oro izan daiteke elebidun.

Bigarren hizkuntzaren bereganatzearen adinaren arabera, hiztun elebidunak bereizten dira: jaiotzetik elebidunak direnak daude eta ondoz ondoko elebidunak ere badaude.

### **1.1. Elebitasun motak**

Hizkuntzaren jabekuntzaren elebidun mota ezberdinak aztertzeko, bi irizpide erabili ditzakegu. Alde batetik, hizkuntzekiko lehen kontaktuaren adina kontuan izanda; eta bestetik, testuinguru soziala kontuan harturik. Kasu honetan, lehenengoan oinarrituko naiz eta aztertuko ditudan elebitasun motak adinean oinarrituko dira. Esaterako, jaiotzetik bi hizkuntzak bereganatu dituen ala jaiotzetik bakarra jaso duen eta bigarrena beranduago.

Alde batetik, jaiotzatik bi hizkuntza jaso dituen haurrak dauzkagu, hau da, elebidun goiztiarrak edo bi lehen hizkuntza dituztenak (2H1dunak). Haurrak jaiotzatik aurrera bi hizkuntza batera, hau da, bi lehen hizkuntza (2H1), bereganatzen ditu. Beraz, haurrak bi lehen hizkuntza ikasten ditu.

Jabekuntza elebidun goiztiarra jabekuntza elebakarraren parekoa da; hizkuntzaren egituraren zein erabileraren ikuspegitik, garapen aroak antzekoak dira, lortutako gaitasun maila ere. (Meisel, 2007).

Beste alde batetik, ondoz ondoko elebidunak edo H1 + H2g-dunak ditugu. Haur hauek H1 etxean jaso dute, jaiotzatik jaso duten hizkuntza bakarra da. Eta H2 goiztiarra edo haurtzaroko H2 eskolan, kalean edota etxean bertan jaso dute baina beranduago.

2H1 eta H2g bereiztea nahiko zaila da, izan ere, hizkuntzarekiko kontaktuaren muga ezartzea ez baita erraza. Beraz, ez dago argi H2g adin jakin batean kokatzerik dagoen (De Houwer, 2009).

Horrez gain, jakin beharra dago parte-hartzaileen elebitasuna ez dela %50 euskara eta %50 gaztelania; elebitasun desorekatu bat da. Ziurtasunez ezin daiteke jakin partaideen euskara eta gaztelaniaren ehunekoa baina ziurra dena da ez dagoela orekatua; gaztelania euskara baino askoz gehiago erabiltzen edo erabili dute haien bizitzetan.

### **1.2. Hizkuntza gutxitu batekiko elebitasuna**

Euskal Herrian diglosia dago. Diglosia edo elebitasun soziala gizarte-egoera bat da. Hizkuntza-komunitatean batean bi hizkuntza desberdin hitz egiten dira. Hizkuntza horiek esparru desberdinetan erabiltzen dira normalean; bat arlo fomaletarako eta bestea, informaletarako edo arlo pribatuan. (Sareko Euskal Gramatika: Diglosia)

Euskal Herrian hori gertatzen da euskara eta gaztelaniarekin. Gure kasuan, denbora luzez dakigun bezala, gure komunitatean hizkuntza batek (gaztelaniak) bestea (euskara) zapaltzen du. Euskara beraz, hizkuntza gutxitu bat da.

Beste alde batetik, gure komunitatean bi hizkuntza daudenez, erraza da hiztun asko elebidunak izatea. Gure kasuan, Euskal Herriko biztanleriaren %37a bakarrik da elebiduna (Etxeberria, 2005). Egun, ez da heldu euskal elebakarrik existitzen, euskaldunek bai ala bai beste hizkuntza bat jakin behar dutelako, gaztelania edo frantsesa. Beraz, euskal hiztunentzat zaila da hizkuntza gutxitu eta zapaldu bat aurrera eramatea.

## **2. HIZKUNTZA HIGADURA**

“Hizkuntza bat ez da galtzen ez dakitenek ikasten ez dutelako, dakitenek hitz egiten ez dutelako baizik”. Joxean Artzeren esaldi hau oso famatua da Euskal Herrian, baina egia al da esaldiak dioena? Benetan hizkuntza bat hitz egiten ez bada galdu egiten da? Jarraian, adituek hizkuntza bat ez hitz egitearen inguruan diotena ikusiko dugu.

Adituek diote hizkuntza bat (ama hizkuntza zein bigarren hizkuntza izan) erabiltzen ez bada hizkuntza hori fosildu daitekeela. Hots, hizkuntza horren jakintza maila gutxitzen dela. Prozesu honi hizkuntzaren higadura deitzen zaio (language attrition) (Schmid, 2008).

Hizkuntzaren higadurak hiztun baten hizkuntza gaitasunak aztertzen ditu. Esaterako, hiztunak galera egon baino lehen hizkuntzarekiko gaitasun batzuk zituen eta hizkuntzaren higaduraren ondorioz gaitasun batzuk edo guztiak galdu ditu. Betiere galtze hori garunaren hondamenaren ondorioz ez baldin bada (gaixotasunen bat, lesioren bat). Hau da, hizkuntzaren galtzea hizkuntza batekiko portaeraren aldaketan emango da, hizkuntza hitz egiten den komunitatearekin haustura dagoenean. (Schmid 2008: 10).

Prozesu hau hiztun elebidunetan gertatzen da; hizkuntza bat gehiago erabiltzen denean eta bestea baztertu egiten denean, bigarren horretan gertatuko da hizkuntzaren higadura (Schmid & Köpke, 2007).

## **2.1. Hizkuntzaren higaduraren adierazgarriak**

Hiztun bati Hizkuntzaren Higadura pairatzen ari den ikusteko hainbat zantzu izan daitezke adierazgarri:

- Hitz batzuk gogoratzeko arazoak izatea
- “Blokeatua” geratzea hitz bat esaterako orduan edo hitza beste hizkuntza batean esatea, esan nahi den hizkuntzan gogoratu ezinik.
- Zalantzati egotea eta hitz-jariorik ez izatea, eten asko erabilita eta “ee”, “mm” bezalakoak errepikatzea
- Zure burua etengabe zuzentzen egotea
- Esamolde arraroak erabiltzea, adibidez, esaldien ordena guztiz kontrakoa izatea

## **2.2. Hizkuntzaren higaduraren faktoreak**

Hizkuntzaren higaduraren faktore ezberdinak daude. Alde batetik, faktore orokorrak daude (Dusseldorp & Schmid 2010: 5, 6):

- Adin biologikoa: adinak hainbat prozesu kognitibotan eragin dezake.
- Sexua: emakumezkoek eta gizonezkoek hizkuntza bat bereganatzeko eta erabiltzeko era desberdinak dituzte; eta honek hizkuntzaren jabekuntzan eta erabileran ondorioak ditu.
- Hezkuntza maila: pertsona bakoitzak daukan hezkuntza maila garrantzitsua da; zenbat hizkuntza dakizkien hiztunak, hizkuntzak bereganatzeko gaitasuna...

Beste alde batetik, hiztun elebidunei dagozkien faktoreak ditugu:

- Elebitasuna lortu den adina kontuan hartu behar da. Ez da berdina bigarren hizkuntza 2 urterekin jaso den edota 30 urterekin.
- Jarrera eta afiliazioa: elebidunak diren hiztunengan eragin handia dauka hizkuntzekiko norberak duen jarrera, motibazioa eta emozioak. Izan ere, hiztun



batek hizkuntza batekiko emozioak edota motibazioa izan dezake baina beste hizkuntza interesatzen ez bazaio alde batera utzi dezake.

### **3. IKERKETAREN DISEINUA ETA ZERGATIA**

Schmid-ek (2008) dioena “attrition investigates the situation where a speaker (of an L1 a later learned second or foreign language) can no longer do something which s/he had previously been able to do, and this loss of proficiency is not caused by a deterioration of the brain due to age, illness or injury, but by a change in a linguistic behavior due to a severance of the contact with the community in which the language is spoken” hartu dut nik hipotesizat.

Hau da, higadurak egoera bat aztertzen du zeinetan hiztunak (H1-en zein H2-n) ezin du lehen egin zezakeen zerbait egin, eta gaitasun honen galera ez da adinagatik, gaixotasun edota zauri batengatik eraginda izan baizik eta hizkuntza hitz egiten den komunitatearekin haustura dagoenean. (Itzulpena Tardientarena, Schmid, 2008-tik hartua)

Idea honen arabera pentsa liteke euskaldunen komunitatearekin haustura dagoenean euskararen galtzea izango dela. Zehatzago esanda, euskara 5 urtez erabili ez duen hiztun elebidun ez orekatuak, adibidez, Schmid-ek aipatzen duen hizkuntza hausturaren adibide izan daitezkeela.

Zehatzago esanda, aurreikus genezake Lizarrako gazte batzuk hizkuntza edo hizkuntza gaitasunak galduko dituztela Euskal Herritik kanpo (euskara hitz egiten den inguruetatik kanpo) egon ondoren eta hori beren ekoizpenetan antzemango da eta ondorioz, bere egunerokoan beti hitz egiten duen batekin konparatuta desberdin hitz egitea.

Lan honetan zehar nire aurreikuspenak betetzen diren ala ez ikusiko dugu. Horretarako, datu bilketa bat diseinatu dut. Hasteko, partaide zehatz batzuk hautatu nituen eta haien datuak biltzeko prozedura bat diseinatu nuen: alde batetik, galdetegi bat; eta bestetik, elkarrizketak.

#### **3.1. Parte-hartzaileak**

Denetara 10 parte-hartzailek osatzen dute nire lagina. Aukeratutako parte-hartzaile guztiak gazteak dira eta antzeko profil soziolinguistikoa dute. Gazte denek 22 urte dituzte

eta Lizarra Ikastolan ikasitakoak dira, D ereduari. Denak ondoz ondoko elebidunak dira, hau da, haien ama hizkuntza gaztelania da eta euskara 2-3 urterekin ikasi zuten, ikastolan hasi zirenean. Denek, D.B.H.ko ikasketak euskaraz egin zituzten Lizarra Ikastolan eta ondoren, batxillergoa Lizarrako institutuan egin zuten (euskaraz hura ere).

Batxillergoa amaitu ondoren batzuk Euskal Herrian geratu ziren karrera egiten eta euskaraz ikasi zuten. Beste batzuk, aldiz, Euskal Herritik kanpo joan ziren karrera egitera eta geroztik ez dute euskararekin kontakturik izan.

Hala ere, gazte hauen euskara maila aztertu baino lehen, ingurunea kontuan hartu behar da; izan ere, Euskal Herrian euskararen egoera ezberdina da herrialdetik herrialdera. Herrialde batzuetan euskara ofiziala da baina beste batzuetan ez. Nafarroan, adibidez, hiru hizkuntza eremu daude euskarari dagokionean: eremu euskalduna, eremu mistoa eta eremu ez euskalduna. Lizarra eremu mistoan dago eta ondorioz, Lizarrako biztanleek euskaraz ikasteko aukera dute (Dufur, 2012).

Gazte hauek hautatzeko arrazoi nagusia izan da denek ezaugarri berak dituztela. Hots, denak adin berekoak dira; herri berean bizitzen dira eta eskola berera joan dira. Baina garrantzitsuena da denek profil soziolinguistiko berdina dutela, denak ondoz ondoko elebidunak dira eta gainera, elebidunak dira euskararentzat oso lagungarria ez den inguru batean.

### **3.2. Datuak biltzeko prozedura**

Datuak biltzeko hainbat prozedura erabili ditut. Hasteko, lehenbizi galdetegi bat bidali nien; denei berdina baina, bakoitzak bere kabuz erantzuteko. Ondoren, banakako elkarrizketak egin nituen eta jarraian hauen transkribaketak. Amaitzeko, galdetegi eta elkarrizketetatik beren ekoizpen datuak atera ditut eta emaitzak aztertu.

#### **3.2.1. Galdetegia**

Galdetegiaren bidez egindako ikerketa asko egin dira urteetan zehar, esaterako: inkesta soziolinguistikoak, Arrue proiektua, Ortega eta beste (2016), Larrañaga (1995), Olasagarre eta beste (2019)... Baina ni zehazki Pardina (2020) lanean oinarritu naiz

galdetegi egiterako orduan. Bertan, D Ereduan euskaldundutako gazte nafarrei galdetegi bat egiten zaie gazteen euskararen ezagutza, erabilera eta jarrerari buruzkoa.

Nik antzekoa egin dut eta nire galdetegiaren helburua Lizarrako parte-hartzaileen ezaugarriak jakitea izan da. Hau da, egun euskararekin dute egoera jakitea, euskara erabiltzen duten jakitea ala ez, euskarari buruz duten jarrera...Laburbilduz, gazte hauen euskararekiko atxikimendua jakitea. Horretarako, ondoko galderak egin nizkien (Ikus 1. Taula):

1. Taula. Galdetegiko itemak

|             |   |
|-------------|---|
| 1. Galdera  | Nongoa zara?  |
| 2. Galdera  | Zenbat urte dituzu?   |
| 3. Galdera  | Non ikasi zenuen txikitan?  |
| 4. Galdera  | Non bizi zara orain kurtsoan zehar?   |
| 5. Galdera  | Eta asteburuetan / oporretan?   |
| 6. Galdera  | Zein da zure ama hizkuntza?   |
| 7. Galdera  | Zenbat urterekin hasi zinen euskara ikasten? Edo euskararekin kontaktuan?           |
| 8. Galdera  | Egun euskaraz hitz egiten duzu?   |
| 9. Galdera  | Duela zenbat ez duzula euskararekin kontaktu jarrairik?                             |
| 10. Galdera | D.B.H. euskaraz egin zenuen?  |
| 11. Galdera | Batxillergoa euskaraz egin zenuen?  |
| 12. Galdera | Karrera euskaraz egin duzu?   |
| 13. Galdera | Familiarekin euskaraz egiten duzu?  |
| 14. Galdera | Lagunekin euskaraz hitz egiten duzu?  |
| 15. Galdera | Zure euskara maila batxillergoan eta orain berdina da?                              |
| 16. Galdera | Euskaraz hitz egiten eroso sentitzen zara?  |
| 17. Galdera | Maila hobea izatea gustatuko litzaizuke?  |
| 18. Galdera | Maila hobetzeko zerbaitegitea pentsatu duzu?  |
| 19. Galdera | Euskaraldian parte hartu zenuen?  |
| 20. Galdera | Hemendik aurrera euskaraz dakitenekin euskaraz hitz egiteko aldaketa egingo zenuke? |

### 3.2.2. Elkarrizketak

Hiztun desberdinen hizkuntza gaitasunak aztertzeko metodo desberdinak erabili izan dira. Esaterako, Manterolak (2010) ipuin-kontaketa metodoa erabiltzen du haurren ekoizpena aztertzeko. Nik metodo hau baztertu egin dut bereziki gazteentzat arrotza izango litzatekeelako haien lagunei ipuinak kontatzea. Ondorioz, metodo honen partez elkarrizketen bidezko metodologia aukeratu nuen.

Elkarrizketak egiterako orduan, partaide bakoitzarekin hitz egin eta haiekin geratu nintzen elkarrizketa egiteko. Lehenbizi, gazteei hurrengo kontsigna eman nien: “Lizarrako euskararen erabileraren inguruko lan bat egingo dut eta horretarako D ereduan ikasi duten 22 urteko gazteei euskararen inguruko galderak egingo dizkiet”. Behin kontsigna emanda prozedura oso erraza izan zen: nik galderak egin eta haiek erantzun. Elkarrizketa egiten geunden bitartean grabagailu batekin ahotsa grabatu egin nuen ondoren elkarrizketak transkribatzeko.

Denei galdera berdinak egin nizkien (Ikus 2. Taula):

#### 2. Taula: Elkarrizketetako itemak

|             |   |
|-------------|---|
| 1. Galdera  | Non bizi zara orain kurtsoan zehar?   |
| 2. Galdera  | Non ikasi zenuen txikitan?  |
| 3. Galdera  | Zein da zure ama hizkuntza?   |
| 4. Galdera  | Gurasoekin, familiarekin eta lagunekin zein hizkuntzatan hitz egiten duzu?  |
| 5. Galdera  | Zenbat urterekin hasi zinen euskara ikasten?                                |
| 6. Galdera  | Zergatik sartu zintuzten gurasoek D ereduan?                                |
| 7. Galdera  | Egun euskaraz hitz egiten duzu?   |
| 8. Galdera  | Duela zenbat ez duzula elkarrizketa bat euskaraz egiten?                    |
| 9. Galdera  | Noiz izan zen liburu edo artikulu bat euskaraz irakurri zenuen azken aldia? |
| 10. Galdera | Uste duzu lehen zenuen maila berdina daukazula?                             |
| 11. Galdera | Zertan nabaritzen duzu gehiago?   |
| 12. Galdera | Gustatuko litzaizuke euskara maila hobea izatea?                            |
| 13. Galdera | Zure seme-alabei euskara erakutsiko diezu?                                  |
| 14. Galdera | Etxeko lanekin laguntzeko, gurasoak euskaltegira joan ziren?                |

### 3.3. Ekoizpenetako aztergaiak

Galdera hauekin (Ikus 2. Taula) lortu nahi nuen informazioa ez dira berez galdera horien erantzunak, baizik eta erantzunak egiterako orduan haien hizkuntza maila neurtzea. Hau da, haiek emandako erantzunak aztertu nahi nituen ergatiboak, lokailuak, jariakortasuna... neurtzeko.

a) Ergatiboa gramatika kasu bat da. Hizkuntza ergatibo-absolutiboetan (euskara bezala) aditz iragankorretan subjektua marka baten bidez markatzen da. Gure kasuan, euskaraz, -k markaren bidez. Lan honetan ergatiboaren erabilera neurtzeko -k zuzenak, -k isilduak eta gehiegizko -k aztertu ditut; azken arazo hau H1 eta H2n ere topa daiteke (Ezeizabarrena, 2012).

b) Lokailuak testu mailako loturak adierazteko erabiltzen ditugun hitzak dira. Lokailuak neurtzeko erabilitako lokailu mota ezberdinak eta bakoitza erabilitako aldien kopurua aztertuko ditut. (SEG: testu mailako loturak)

c) Hitz txandetan hiztunaren hitz txandak nolakoak diren ikusiko ditugu. Hots, hitz txanda bakoitzaren luzera zenbatekoa den, esaldi luzeak ala laburrak egiten dituen... Hau neurtzeko, esaldien luzerak aztertuko ditut. (Manterola, 2012)

d) Hizkuntzaren kontsistentzian hiztunek elkarrizketa osoa hizkuntza berean egin duten ala beste hizkuntza batera aldatu duten ikusiko dugu. Hau neurtzeko, hiztunek zenbat esalditan gaztelerara aldatu duten aztertuko dut.

### 3.4. Parte-hartzaileen xehetasunak

Manterolak (2010) parte-hartzaileak bi taldetan banatzen ditu: alde batetik, euskaraz euskaldunak diren hiztunak eta bestetik, etxetik erdaldunak direnak eta ondoren euskara ikasi dutenak.

Metodo honetan oinarrituta, nik ere parte-hartzaileak bi taldetan banatu ditu: alde batetik, euskararekin kontaktuan jarraitzen duten hiztunak; eta bestetik, duela 5 urtetik (gutxi gorabehera) euskararekin kontakturik ez dutenak. Lehenengo taldea A taldean izango da eta bigarrena, B taldea.

3. Taulan parte-hartzaileak 1etik 10erako zenbakiekin izendatu ditut. Bigarren zutabea, hiztun hauen gaur egungo bizilekua ipini dut, garrantzitsua izango baita komunitatearekin haustura egon den ala ez jakiteko. Ondoren, ikasketak zein hizkuntzatan egin dituzten jarriko dut, izan ere, denek karrera bat egin dute eta hau lau urtez egunero egin duten zerbait denez, erabilgarria izango da zein hizkuntzatan egin duten jakitea. Amaitzeko, azken zutabea egun familiarekin, lagunekin, ikaskideekin... zein hizkuntzatan hitz egiten duten azalduko dut. (Datu hauek guztiak galdetegitik ateratakoak dira)

3. Taula. Parte-hartzaileen xehetasunak

| Parte-hartzailea | Bizilekua | Ikasketak  | Hizkuntza            |
|------------------|-----------|------------|----------------------|
| 1                | Iruñea    | Euskara    | Gaztelania           |
| 2                | Iruñea    | Euskara    | Euskara / Gaztelania |
| 3                | Madril    | Gaztelania | Gaztelania           |
| 4                | Madril    | Gaztelania | Gaztelania           |
| 5                | Iruñea    | Gaztelania | Euskara / Gaztelania |
| 6                | Madril    | Gaztelania | Gaztelania           |
| 7                | Madril    | Gaztelania | Gaztelania           |
| 8                | Iruñea    | Euskara    | Euskara / Gaztelania |
| 9                | Bilbo     | Euskara    | Euskara / Gaztelania |
| 10               | Balentzia | Gaztelania | Gaztelania           |

Espero dudana da, beraz, A taldean ondoren aztertuko ditugun parametro horietan zuzentasun maila handia erakustea, hau da, ergatiboa ongi egitea; lokailuak erabiltzea; hitz txandei dagokienez, esaldi luzeak egitea; diskurtsoa jariakorra izatea, hau da, denbora luzez etenik ez egotea; eta hizkuntzaren kontsistentzia, hots, dena hizkuntza berdinean egitea eta hizkuntza aldaketarik ez egotea.

Ondorioz, aurreko informazio guztiarekin nire aurreikuspena da:

4. Taula. Parte-hartzaile taldeen aurreikuspena

|            |                |
|------------|----------------|
| A taldean: | 1, 2, 5, 8, 9  |
| B taldean: | 3, 4, 6, 7, 10 |

#### 4. EMAITZAK

Partaide batzuen eta besteen artean ezberdintasun batzuk daude, hala nola: ergatiboa, lokailuak, etenak, perifrasi gehiegi erabili beharra, hitz txanda bakoitzaren luzera zenbat hitzetakoa den, hizkuntzaren kontsistentzia, hizkuntzen arteko koherentzia, jariakortasuna, autonomia...

Jarraian, parametro hauetako batzuk banan-banan aztertuko ditut eta partaide bakoitza talde batean kokatuko dut parametro hauetan oinarrituz. Hots, A taldean euskararekin kontaktuan jarraitu duten partaideak egongo dira; talde honek orain aipatutako parametroak ongi egitea espero dugu. B taldeak, berriz, parametro hauek ez egitea edo egiten baditu, gaizki egitea espero dugu.

(Atal honetan agertuko diren adibide denak elkarriketatik ateratakoak dira)

##### 4.1. Ergatiboa

Hiru ekoizpen mota identifikatu ditugu (2)-n ikus daitezkeen bezala (a), (b) eta (c). 5. Taulan adibide mota bakoitzaren kopuruak ikus daitezke, partaideka:

(2) a. -k zuzenak:

- “nere ahizpak bai behar zuela laguntza” (2. partaidea)
- “nik uste ez dudala maila asko jaitsi” (5. partaidea)
- “horrelako gauzek laguntzen dutela” (8. partaidea)

b. -k isilduak:

- “bakoitza zeukan bere euskera” (1. partaidea)
- “bera beti hitz egiten zuen euskaraz” (3. partaidea)
- “Hau esan zidan Ana” (4. partaidea)

c. -k gehiegizkoak:

- “nik sentituko nintzateke gaizki (4. partaidea)
- “ikastolakoek gehienek daude ikasten euskeraz” (7. partaidea)

## 5. Taula. Ergatiboaren emaitzak

| Partaideak | -k zuzenak | -k isilduak | -k gehiegizkoak | Guztira | Zuzentasun % |
|------------|------------|-------------|-----------------|---------|--------------|
| 1          | 0          | 3           | 0               | 3       | 0            |
| 2          | 14         | 0           | 0               | 14      | 100          |
| 3          | 5          | 3           | 0               | 8       | 62,5         |
| 4          | 4          | 8           | 3               | 15      | 26,66        |
| 5          | 8          | 1           | 0               | 9       | 88,88        |
| 6          | 0          | 1           | 0               | 1       | 0            |
| 7          | 3          | 8           | 1               | 12      | 25           |
| 8          | 10         | 0           | 0               | 10      | 100          |
| 9          | 8          | 0           | 1               | 9       | 88,88        |
| 10         | 0          | 2           | 1               | 3       | 0            |

### 4.2. Lokailuak

Bi ekoizpen mota identifikatu ditugu (3)-n ikus daitezkeen bezala (a), eta (b). 6. Taulan adibide mota bakoitzaren kopuruak ikus daitezke, partaideka:

(3) a. Lokailu mota desberdinak:

- “kultura horretan murgildu zituen eta horren ondorioz nik uste lehengusu eta lehengusina guztiak ikastolara joan garela” (2. partaidea)
- “Sabinok hitz egiten zigula hikan ez eta orduan guk noizbait hika entzun dugu” (2. partaidea)
- “nire ama apuntatu zen Lizarrako euskaltegira eta gainera oso gustora hartu zuen” (2. partaidea)
- “kuadrillakoekin ez dugu inoiz euskaraz hitz egin ta nahiz eta denak ikastolakoak izan” (2. partaidea)

b. Kopurua:

- “adibidez entzuten baduzu ee bizkaitar bat hitz egiten” (3. partaidea)
- “euskaraz jakin arren hartu dugu ohitura” (7. partaidea)



Ondoko taulan ikusiko duguna da partaide bakoitzak zenbat lokailu mota desberdin erabili dituen eta ondoren, guztira zenbat lokailu erabili dituen (errepikatu direnak kontuan harturik).

#### 6. Taula. Lokailuen emaitzak

| Partaideak | Lokailu ezberdinak | Guztira |
|------------|--------------------|---------|
| 1          | 1                  | 1       |
| 2          | 8                  | 17      |
| 3          | 2                  | 8       |
| 4          | 2                  | 3       |
| 5          | 2                  | 4       |
| 6          | 0                  | 0       |
| 7          | 2                  | 2       |
| 8          | 6                  | 14      |
| 9          | 3                  | 11      |
| 10         | 1                  | 1       |

#### 4.3. Hitz txandak

Bi ekoizpen mota identifikatu ditugu (4)-n ikus daitezkeen bezala (a), eta (b). 7. Taulan adibide mota bakoitzaren kopuruak ikus daitezke, partaideka:

(4) a. Motzak:

- Lizarra Ikastolan (1. partaidea)
- orain Madrilen (3. partaidea)
- gaztelera ee nire aitak ez bueno nire gurasoak ez dakite euskeraz asi que (4. partaidea)

b. Luzeak:

- bai gogoan dut nere amak ee bueno ni izan naiz nahiko independente eta beti egin ditut etxerako lanak bakarrik eta ondo moldatu naiz baino nere ahizpak bai behar zuela laguntza extra hori ez eta hori dela eta nire ama apuntatu zen ee Lizarrako euskaltegira eta gainera oso gustora hartu zuen egiten genituen irteerak gogoratzen naiz pilo bat hori eta egin zituen lagunak ere ba egoera berdinean zeudela (2. partaidea)

- ba kuadrillakoekin segun adibidez ba kuadrillako batzuekin adibidez bueno Maddi! Maddirekin ohituak gaude beti euskaraz hitz egitera berak normalean beti etxean eta leku guztietan euskaraz hitz egiten duelako orduan Maddirekin bai beti hitz egiten dudala euskaraz o sea ni se me ocurre gazteleraz hitz egitea eta bueno zurekin batzutan baina besteekin beti erdaraz hitz egiten dugu (9. partaidea)

Taula honetan ikusiko duguna da alde batetik, partaideek orokorrean esaldi laburrak ala luzeak egin dituzten eta beste alde batetik, zenbat hitz esan dituzten guztira elkarrizketan zehar.

#### 7. Taula. Hitz txanden emaitzak

| Partaideak | Laburrak / Luzeak | Hitz kopurua |
|------------|-------------------|--------------|
| 1          | Laburrak          | 263          |
| 2          | Luzeak            | 933          |
| 3          | Laburrak          | 348          |
| 4          | Laburrak          | 453          |
| 5          | Luzeak            | 1002         |
| 6          | Laburrak          | 432          |
| 7          | Luzeak            | 912          |
| 8          | Luzeak            | 1137         |
| 9          | Luzeak            | 668          |
| 10         | Laburrak          | 245          |

#### 4.4. Hizkuntzaren kontsistentzia

Bi ekoizpen mota identifikatu ditugu (5)-n ikus daitezkeen bezala (a), eta (b). 8. Taulan adibide mota bakoitzaren kopuruak ikus daitezke, partaideka:

(5) a. Gaztelerara aldatu:

- “berdin hitz egin Maitanerekin (4’’) como si fuese tan facil” (4. partaidea)
- “saiatuko (3’’) nintzateke (2’’) baina mm eso no iba a salir bien” (4. partaidea)

- “orduan uste dut beharrezkoa dela extra bat izatea y aunque sea una desventaja al final es lo que mejor te viene si es como una clase mas gratis realmente” (6. partaidea)

b. Euskara eta gaztelera nahasi:

- “bai bai entzuten dut pila bat sobretudo en el morea eta eroskin” (1. partaidea)
- “ba nik uste (4’’) nire ama Gipuzkoakoa zelako (2’’) etaa pues ni yo que se sabes nahi zuen ni euskara jakitea” (3. partaidea)
- “lagunekin saiatu gara (4’’) pero batzuk no ponen de su parte” (10. partaidea)

Taula honetan partaide bakoitzak hizkuntzaz zenbatetan aldatzen duen adierazita dago. Hau da, partaideek elkarrizketa euskaraz egin dute baina batek baino gehiagok txanda askotan gaztelera aldatzen zuten zenbait hitz edota esaldi esateko. Horrez gain, guztira gaztelera zenbat hitz esaten dituzten adierazita dago.

8. Taula. Hizkuntzaren kontsistentziaren emaitzak

| Partaideak | Hizkuntza aldatu | Hitzak gaztelera |
|------------|------------------|------------------|
| 1          | 4                | 15/263 (%5,7)    |
| 2          | 0                | 0/933            |
| 3          | 13               | 57/348 (%16,37)  |
| 4          | 26               | 91/453 (%20,08)  |
| 5          | 0                | 0/1002           |
| 6          | 13               | 96/432 (%22,22)  |
| 7          | 3                | 6/912 (%0,65)    |
| 8          | 0                | 0/1137           |
| 9          | 0                | 0/668            |
| 10         | 15               | 84/245 (%34,28)  |

Aurreko parametro guztiak kontuan harturik eta banan-banan aztertuta, ondorengo ondorioak atera ditut.

9. Taula: Ergatiboa

| Partaideak | Zuzenak | A taldea | B taldea |
|------------|---------|----------|----------|
| 1          | %0      |          | X        |

|    |       |   |   |
|----|-------|---|---|
| 2  | %100  | X |   |
| 3  | %62,5 |   | X |
| 4  | %60   |   | X |
| 5  | %72   | X |   |
| 6  | %0    |   | X |
| 7  | %36   |   | X |
| 8  | %100  | X |   |
| 9  | %72   | X |   |
| 10 | %0    |   | X |

Taula honen 2. zutabean ikusten dugu partaide bakoitzak zenbat ergatibo egin dituen zuzen. Guztira egindako ergatiboak kontuan harturik; zuzenak, isilduak eta gehiegizkoak, kalkulatu egin dut zein ehuneko egin duten zuzen. Horren arabera, A edo B taldean banatu ditut. A taldean %70etik gora zuzen egin dituzten partaideak sartu ditut; B taldean, aldiz, %70etik behera egin dutenak.

#### 10. Taula: Lokailuak

| Partaideak | Kopurua | A taldea | B taldea |
|------------|---------|----------|----------|
| 1          | 1       |          | X        |
| 2          | 17      | X        |          |
| 3          | 8       |          | X        |
| 4          | 3       |          | X        |
| 5          | 4       |          | X        |
| 6          | 0       |          | X        |
| 7          | 2       |          | X        |
| 8          | 14      | X        |          |
| 9          | 11      | X        |          |
| 10         | 1       |          | X        |

Taula honetan lehenengo zutabean partaide bakoitzak guztira egin dituen lokailuen kopurua agertzen zaigu (Ikus 6. Taula). Honen arabera, 10 lokailu baino gehiago egin dituzten partaideak A taldean sartu ditut eta 10 lokailu baino gutxiago esan dituztenak B taldean.

11. Taula: Hitz txandak

| Partaideak | Esaldiak | Hitzak | A taldea | B taldea |
|------------|----------|--------|----------|----------|
| 1          | Laburrak | 263    |          | X        |
| 2          | Luzeak   | 933    | X        |          |
| 3          | Laburrak | 348    |          | X        |
| 4          | Laburrak | 453    |          | X        |
| 5          | Luzeak   | 1002   | X        |          |
| 6          | Laburrak | 432    |          | X        |
| 7          | Luzeak   | 912    | X        |          |
| 8          | Luzeak   | 1137   | X        |          |
| 9          | Luzeak   | 668    | X        |          |
| 10         | Laburrak | 245    |          | X        |

Taula honetan lehenbizi partaide bakoitzak egin dituen esaldiak laburrak ala luzeak diren eta guztira zenbat hitz esan dituen bakoitzak adierazten da (Ikus 7. Taula). Ondoren, hori kontuan hartuta, bi taldetan sailkatu ditut partaideak. A taldean esaldi luzeak eta 500 hitz baino gehiago egin dituzten partaideak daude eta B taldean esaldi laburrak egin dituztenak eta 500 hitz baino gutxiago esan dituztenak.

12. Taula: Hizkuntzaren kotsistentzia

| Partaideak | Hitzak gazteleraz | A taldea | B taldea |
|------------|-------------------|----------|----------|
| 1          | %5,7              |          | X        |
| 2          | %0                | X        |          |
| 3          | %16,37            |          | X        |
| 4          | %20,08            |          | X        |
| 5          | %0                | X        |          |
| 6          | %22,22            |          | X        |
| 7          | %0,65             | X        |          |
| 8          | %0                | X        |          |

|    |        |   |   |
|----|--------|---|---|
| 9  | %0     | X |   |
| 10 | %34,28 |   | X |

Taula honen 2. zutabean partaide bakoitzak egin dituen gaztelerazko hitzen ehunekoa agertzen da. Hau, guztira esandako hitzen kopuruaren bidez (Ikus 7. Taula) gaztelerazko hitz kopuruarekin (Ikus 8. Taula) lortu dut. Honen bidez, %5etik aurrera gazteleraz egin duten partaideak B taldean sailkatu ditut eta hortik beherakoak, A taldean.

Datu hauek aurrean izanda, kasu gehienetan Schmid-en esana bete egin da. Izan ere esan honen arabera aurretik egindako sailkapenean (Ikus 4. Taula); 1, 2, 5, 8 eta 9. partaideak A taldean egongo lirateke, hau da, hizkuntzaren higadura pairatu ez dutenen artean. 2, 5, 8 eta 9. partaideen kasuan hala da, parametro guztiak ongi egin dituzte (gehienetan) baina 1. partaidearen kasuan guztiz kontrakoa gertatzen da. 1. partaideak parametro guztiak oker egin ditu eta emaitza kaskarrak atera dira bere datuetatik.

B taldean, berriz, aurretik ikusitakoaren arabera, (Ikus 4. Taula) 3, 4, 6, 7 eta 10. partaideak egongo lirateke eta hauek Schmid-en esanarekin bat datoiz. Hau da, B taldeko partaideak hizkuntza hitz egiten den komunitatearekin haustura izan ondoren, hizkuntzaren gaitasun batzuk galdu dituzte. Hau partaide guztietan betetzen da 7. partaidean izan ezik, hiztun honen datuak ikusita, antzeman daiteke hizkuntzaren gaitasun batzuk galdu dituela baina ez denak, batzuk mantendu egin ditu eta alderdi batzuk ongi egin ditu.

Beraz, badirudi 1. eta 7. partaideen kasuan alderantzizkoa gertatzen dela. 1. partaideak ingurune euskaldun batean bizitzen jarraitu duen arren eta komunitatearekin hausturarik izan ez duen arren, hizkuntzaren gaitasun batzuk galdu ditu. 7. partaidea ez bezala.

## 5. ONDORIOAK

10 gazte euskaldun elebidun goiztiarren galdetegi eta elkarrizketen datuek aukera eman didate hiztun ezberdinen euskara gaitasunak aztertzeko elkarrizketen bidezko metodologia erabiliaz. Horrez gain, Schmid (2008)-en ideia testatzeko eta ikusteko nire

ikerketan ere betetzen den ala ez. Ondorioz, salbuespenak salbuespen nire ikerketa xume hau Schmid-en ideiarekin bat datorrela esan dezaket.

## **BIBLIOGRAFIA**

Almgren, M. & Manterola, I. (2016). The development of narrative skills in learners of Basque as a second language. *Education Inquiry*, Vol. 7, No. 1, March 2016, pp. 27- 46.

De Houwer, A. (2009). *Bilingual first language acquisition*. Clevedon, UK: Multilingual matters, 2009. Pp. xvii + 412.

Dufur, A. (2012). *Lizarra, euskararen biziberritzetik indarberritzera*. Hiznet Hizkuntza Plangintza Gradu ondoko sakontze egitasmoa. UPV/EHU. <https://hiznet.asmoz.org/wpcontent/uploads/2018/10/Lizarra.pdf> [Kontsulta data: 2021-03-25]

Dusseldorp, E. & Schmid, M. (2010). *Quantitative analyses in a multivariate study of language attrition: The impact of extralinguistic factors*. 1-48.

Etxeberria, F. (2005). *Elebitasuna eta Hezkuntza Euskararen Herrian*. Donostia: Erein.

Euskara Institutua, EHU, *Diglosia*. Sareko Euskal Gramatika (SEG). [www.ehu.eus/seg](http://www.ehu.eus/seg) ISBN; 978-84-9891-3

Eusko Jaurlaritza, (2013). *Ikasleak hiztun: 2011ko arrue proiektua: ikerketaren emaitza, adituen iritzi-azalpenak*. Eusko Jaurlaritza: Vitoria-Gasteiz.

Eusko Jaurlaritza & Nafarroako Gobernua (Euskarabidea) & Euskararen Erakunde Publikoa (2016). *VI. Inkesta Soziolinguistikoa. Euskararen eremu osoa*. Eskuragarri: [https://www.irekia.euskadi.eus/uploads/attachments/9954/VI\\_INK\\_SOZLGEH\\_eus.pdf?1499236557](https://www.irekia.euskadi.eus/uploads/attachments/9954/VI_INK_SOZLGEH_eus.pdf?1499236557) [Kontsulta data: 2021-03-21]

Ezeizabarrena, M.J. (2012). *The (in)consistent ergative marking in Basque: L1 and early H2*. *Lingua* 122 (3), 303-317).

Gaindegia (2018). *Euskaraldia zenbakitan*. Eskuragarri: [https://euskaraldia.eus/wp-content/uploads/2019/01/EUSKARALDIA\\_ZENBAKITAN.pdf](https://euskaraldia.eus/wp-content/uploads/2019/01/EUSKARALDIA_ZENBAKITAN.pdf).

Larrañaga, N., (1995). *Euskalerriko gaztetxoek euskararekiko dituzten jarrerak eta beren eragina euskara ikasi eta erabiltzean*. Doktorego tesia. UPV/EHU. Eskuragarri: [http://www.euskara.euskadi.net/appcont/tesisDoctoral/PDFak/Nekane\\_Larranaga\\_TESI.pdf](http://www.euskara.euskadi.net/appcont/tesisDoctoral/PDFak/Nekane_Larranaga_TESI.pdf) [Kontsulta data: 2021-04-14]

Manterola, I. (2010). *Euskarazko murgilketa haur hezkuntzan: euskara-gaztelania elebitasunaren azterketa*. Doktorego tesia. UPV/EHU: Vitoria-Gasteiz.

Nafarroako Gobernua. *Hizkuntza ereduak*. Hizkuntza departamentua. Eskuragarri: <https://www.educacion.navarra.es/eu/web/dpto/modelos-linguisticos>.

Martínez de Luna Pérez de Arriba, I. (2012). *Elebitasuna*. Auñamendi Entziklopedia [online], 2021. Eskuragarri: <https://aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/eu/elebitasuna/ar-14213/> [Kontsulta data: 2021-04-20.]

Meisel, J (2007). *The weaker language in early child bilingualism: Acquiring a first language as a second language?* ISSN 0142-7164, Vol. 28. N°3, 2007, págs. 495-514.

Nafarroako Gobernua (2020). *Nafarroako datu soziolinguistikoak, 2018*. Euskarabidea - Euskararen Nafar Institutua, Euskararen Sustapenaren eta Plangintzaren Zerbitzua. Eskuragarri: [azterketa\\_soziolinguistikoa\\_2018.pdf](#) (navarra.es). [Kontsulta data: 2021-03-6]

Olasagarre, Y., Ramos, R. eta Vilches, C. (2019). *DBH-ko Ikasleen hizkuntza atxikimendua hobetzeko ikerketa eta esku hartzea*. Eskuragarri: [https://academicae.unavarra.es/bitstream/handle/2454/32611/DBHko\\_ikasleen.pdf?sequence=1&isAllowed=y](https://academicae.unavarra.es/bitstream/handle/2454/32611/DBHko_ikasleen.pdf?sequence=1&isAllowed=y) [Kontsulta data: 2021-04-17]

Ortega, A.; Amorrortu, E.; Goirigolzarri, J. eta Urla, J. (2016). *Euskal hiztun berriak: esperientziak, jarrerak eta identitateak*. Deustuko Unibertsitatea: Bilbo.



Pardina, A. (2019). *D ereduan euskaldundutako gazte nafarren hizkuntza erabilera, jarrerak eta identitateak: ikerketa proposamena*. GRALa. UPV/EHU: Vitoria-Gasteiz. Eskuragarri: GRAL\_Pardina.pdf. [Kontsulta data: 2021-01-28]

Schmid, M. & Köpke, B., (2007). *Bilingualism and attrition*. In: *Language Attrition: Theoretical perspectives*. Editors: Köpke, B., Schmid, MS., Keijzer, M. and Dostert, S., . John Benjamins. 1- 7. *Studies in Bilingualism*, 978 90 272 4144 3. ffhal-00981100.

Schmid, M. (2002). *First Language Attrition, Use and Maintenance: The case of German Jews in Anglophone countries*. Amsterdam/Philadelphia: John Benjamins.

Schmid, M. (2008). *Defining Language Attrition*. *Babylonia*, vol. 2, no. 8, pp. 9-12.

Soziolinguistika klusterra (2017). *Hizkuntzen erabileraren kale-neurketa. Euskal Herria, 2016*. Prentsa-txostena. Eskuragarri: hekn2016-\_eu\_1.pdf (soziolinguistika.eus). [Kontsulta data: 2021-03-15]